

AMAIUR PARKEA EGOKITZEKO LANEN GAINEKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko azaroaren 14an Gune Publikoetako batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko legegintzaldian Amaraberri Auzo Elkarteko ordezkariekin egindako bileretan, adierazitako behar eta arazoen artean Amaiur parkea egokitzeko nahia aipatu zuten. Egokitze lan horiek, parkea garbitzea; ordezko bide batzuk, banku, iturri eta farola batzuk jartzea, eta abar lirateke.

Lehengo legegintzaldian ordea, udalak izandako egoera ekonomiko zaila ikusita, Amaiurko hobekuntzei uko egin gabe, beste proiektu eta lan batzuk lehenetsi ziren: Loiolako Erriberetako lanak, auzoko zubiak indartzea, etab.

PSE-EE udal taldeak gogor kritikatu zuen aurreko gobernuaren erabakia, eta Amaiur parkean konponketak urgentziaz egin behar zirela adierazi zuen. Gaur egun, urte bat eta erdi gobernuan egon ondoren eta egoera ekonomiko hobegoarekin, bere lehentasunak aldatu direla dirudi, ez baita inongo proposamen zehatzik edo lan sakonik egin parkean.

Bestetik, EH Bildu udal taldeak, urrian auzo elkartearekin egindako bileran, berriro, agerian gelditu da bizilagunek parkea berritzeko duten nahia: mahai eta bankuak, haurrentzako edo adineko-pertsonentzako jolasak, iturria berreskuratu, parkea sartu *Musika Parkean* programaren egitarauan eta abar.

Azaroko batzordeetan delegatua interpelatu genuen eta dagoeneko txakurrentzako parke bat egiten ari zirela aipatu zuen, hain zuzen ere, Osinaga aldean. Bestetik, aipatu zigun abenduaren 3an, Euskara eta Nafarroaren egunean, oroimen monolito bat jarri behar zela parkearen gune batean. Aldi berean, Amaraberriko auzo elkarteak egindako eskaera luzatu genion delegatuari: Amaiur parkea sartzea *Musika parkean* egitarauan, eta proposamen positiboa iruditu zitzaion.

Baina 2017an, Udal Gobernuak, auzotarrek eskatzen dituzten konponketetarako partidaren bat jarri behar zuen ala ez galdetu genionean, ezezkoa erantzun zigun eta konponketa gutxi batzuk egingo zirela adierazi zuen, mantenuko partida orokorreko dirua erabiliz (50.000 eurotako hiri-altzarien partidatik), zehaztasunik eman gabe.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

1. Udaltzarak eskatzen dio Udal Gobernuari, Amaiur parkea Musika Parkeko egitarauan sartu edo ez baloratzerako orduan, prozesua Amara Berri auzo elkartearekin batera egin dezala, bera baita proposamena egin duen eragilea.
2. Udaltzarak eskatzen dio Udal Gobernuari aztertu ditzala Amara Berri auzo elkarteak Amaiur Parkerako ikusten dituen beharrak eta 2017 urtean egin daitezkeen lan eta konponketak elkartearekin batera baloratu eta lehenetsi ditzala.

Donostian, 2016ko azaroaren 18an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia